

Hizkuntza-ziurtagiriak baloratzeko irizpidea

PIF EHU 2026 deialdian hizkuntza-ziurtagiriak merezimendu gisa baloratzeari dagokionez, jakinarazten da ACLES/CRUEren hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasun-tauletan ezarritako irizpideak aplikatuko direla.

Bereziki, baliokidetasun-taulek honako hau ezartzen dute:

“Trebetasun bakoitzaren maila zehatza jasotzen duten ziurtagirien kasuan, ziurtagiriaren mailatzat edozein trebetasunetan lortutako mailarik baxuena hartuko da kontuan, dokumentuan jasotzen den maila orokorra edozein dela ere.”

Beraz, ziurtagiri batek hizkuntza-trebetasun bakoitzean lortutako maila bereizita jasotzen duenean, baloraziorako kontuan hartuko den maila gaitasun guztietan lortutako mailarik baxuena izango da, nahiz eta ziurtagirian maila orokor altuagoa agertu.

Hala, adibidez, ziurtagiri batek C1 maila orokorra jasotzen badu, baina trebetasunen kalifikazio banakatuak C1, C1, B2 eta C1 badira, hurrenez hurren, balorazioaren ondorioetarako kontuan hartuko den maila B2 izango da.

Aitzitik, trebetasun desberdinak konpentsatzen ez dituzten erakundeek emandako ziurtagirien kasuan, ez da beharrezkoa kalifikazioen banakapena izatea. ACLESek emandako argibidearen arabera, kasu horietan, ziurtagiriak maila jakin bat egiaztatzen badu, maila hori probaren atal guztietan lortu dela egiaztatzen da edo, trebetasun guztiak maila horretan edo gorago daudela.

Halaber, ACLES/CRUEk berariaz ezartzen dute, Cambridge English ziurtagiriei dagokienez, honako hau:

“Cambridge English ziurtagirietan, ikaslea azterketara aurkeztu zen maila soilik aitortzen da.”

Beraz, Cambridge English ziurtagirien kasuan, balorazioan ikaslea azterketara aurkeztu zen maila zehatza hartuko da kontuan, nahiz eta lortutako puntuazioa Cambridge eskalaren arabera, maila altuago bati dagokion tartean egon.

Horrela, adibidez, ikasle bat Cambridge English: Advanced (C1) azterketara aurkezten bada eta Cambridge emaitzen eskalaren arabera C2 mailari dagokion puntuazioa lortzen badu, balorazioaren ondorioetarako C1 maila soilik aitortuko da, ikaslea aurkeztu zen azterketaren maila hori delako.

Ondorioz, hizkuntza-maila baloratzerakoan, ez da ziurtagirian jasotzen den maila orokorra soilik kontuan hartuko; aitzitik, goian adierazitako ACLES/CRUEren irizpideen arabera egingo da balorazioa.

Criterio de valoración de las certificaciones de idiomas

En relación con la valoración de las certificaciones de idiomas como mérito en la convocatoria PIF EHU 2026, se informa de que se aplicarán los criterios establecidos en las tablas de equivalencias de certificaciones de idiomas de ACLES/CRUE.

En particular, las tablas de equivalencias establecen que:

“Para aquellos certificados que reflejan el nivel concreto de cada destreza, se reconoce como nivel del certificado el mínimo obtenido en cualquiera de las destrezas, con independencia del nivel global que figure en el documento”.

Por tanto, cuando un certificado refleja de forma diferenciada el nivel obtenido en cada una de las destrezas lingüísticas, el nivel que se tendrá en cuenta para su valoración será el más bajo de los niveles obtenidos en las distintas destrezas, aunque el certificado indique asimismo un nivel global superior.

Así, por ejemplo, si un certificado refleja un nivel global C1, pero las calificaciones desglosadas de las destrezas corresponden a C1, C1, B2 y C1, respectivamente, el nivel considerado a efectos de valoración será B2.

Por el contrario, en el caso de certificaciones de instituciones que no compensan las distintas destrezas, no es necesario disponer del desglose de las calificaciones. Según la aclaración efectuada por ACLES, en estos casos, si la certificación acredita un determinado nivel, se acredita que dicho nivel ha sido obtenido en todas las partes de la prueba o, en su caso, que todas las destrezas se encuentran en ese nivel o por encima.

Asimismo, ACLES/CRUE establecen específicamente, en relación con los certificados de Cambridge English, que:

“En los certificados de Cambridge English se reconoce únicamente el nivel para el que el estudiante se presentó al examen.”

Por tanto, en el caso de las certificaciones de Cambridge English, la valoración deberá atender al nivel concreto del examen al que se haya presentado el estudiante, con independencia de que la puntuación obtenida pueda situarse, conforme a la escala de resultados de Cambridge, dentro del rango correspondiente a un nivel superior.

Así, por ejemplo, si un estudiante se presenta al examen Cambridge English: Advanced (C1) y obtiene una puntuación que, conforme a la escala de resultados de Cambridge, se corresponde con un nivel C2, a efectos de valoración se reconocerá únicamente el nivel C1, al ser este el nivel del examen al que se presentó el estudiante.

En consecuencia, la valoración del nivel de idioma no se realizará atendiendo exclusivamente al nivel global que figure en el certificado, sino conforme a los criterios de ACLES/CRUE señalados anteriormente.